

ELKARTASUN-JARDUERAK

Jarduera honen bidez lant ditzakegun edukia:

Norberaren ezagutza eta autonomia pertsonala: 1., 2., 3. eta 4. blokeak

Inguruaren ezagutza: 3. blokea

Komunikazioa eta adierazpena: 1., 3. eta 4. blokeak

IRAKURKETA-FITXA: ZER DA ELKARTASUNA?

Beharko dugun materiala:

Elkartasuna ipuina ([esteka](#)).

Garapena

1. Fasea

- Hainbat egoera aurkeztu neska-mutilei, esan dezaten haiek egoera horien aurrean nola jokatzten duten.

Haur bat negarrez ikusten dudanean:

- Ez diot kasurik egiten.
- Beregan hurbildu eta zer gertatzen zaion galdetzen diot.
- Barre egiten diot, negarrez ari delako.

Gelako materialak erabiltzen ditudanean:

- Ondo zaintzen ditut eta erabili ondoren gorde egiten ditut, guztionak direlako.
- Erabili ondoren, ez ditut jasotzen, botata uzten ditut.
- Batere zaindu gabe erabiltzen ditut.

Jolasten ari naizenean:

- Nahi ditudan jostailu guztiak hartzen ditut, beste neska-mutilak kontuan izan gabe.
- Besteekin partekatzen ditut jostailuak.
- Batere arduratu gabe erabiltzen ditut jostailuak; ez zait axola puskatzen badira.

Margo orlegia erabiltzen ari banaiz eta ikaskide batek margo hori eskatzen badit:

- Ez diot ematen, nik ere behar dudalako nire fitxa margotzeko.
- Haserretu egiten naiz, ez zaidalako batere gustatzen margoak partekatzea.
- Eman egiten diot eta berak bukatutakoan hartzen dut.

Jolastokian jolasten ari naizenean ikusten badut norbaitek ezin duela zabutik jaitsi:

- Irakaslearengana joaten naiz laguntza eskatzera.
- Ez diot kasurik egiten eta jolasten jarraitzen dut.
- Barre egiten diot zabuan dagoenari.
- Batzuen eta besteen iritziak entzun ondoren, adierazi nolakoak izango lirakekeen elkartasunezko jokabideak.



2. Fasea

- Inprimatu ipuineko ilustrazioak eta jarri ikasgelan ondo ikusten diren leku batean. Irakurri neska-mutilei Elkartasuna ipuina.
- Ipuina irakurri ondoren, eszenaz eszena aztertu, agertzen diren alderdiak aipatu.
- Honelako galderak egin neska-mutilei:
 - Lagundu al diozue noizbait beharrean zegoen norbaiti? Noiz?
 - Fitxak egin behar dituzuenean, elkarbanatzen al duzue materiala?
 - Zaintzen al duzue ikasgelako materiala?
 - Ikasgela txukun eta garbi izateko ahalegina egiten al duzue? Zer egiten duzue horretarako?
 - Ikaskide bat negarrez ikusten duzuenean, galdetzen al diozue zer gertatzen zaion?
 - Zer esaten digu ipuinak elkartasunari buruz?
 - Elkartasuna nola adierazi edo gauza daiteke?
 - Hitz gutxitan, elkartasuna zer dela esango zenukete?
- Eman deztela beren iritzia; horrela, ikusi ahal izango duzu zer mezu berenganatu duten landutako gaiari buruz.
- Ilustrazioak ikasgelan zintzilik utzi, elkartasunez jokatu behar dugula gogorarazteko orduan euskarri gisa baliatzeko.

ZER DA ELKARTASUNA?

Elkartasuna zer den
jakin nahi baduzu,
entzun adi-adi
eta berehala ikusiko duzu.
Zer da ELKARTASUNA?
Besteei laguntzea.
Zer da ELKARTASUNA?
Ikasgela txukun eta garbi izatea.
Zer da ELKARTASUNA?
Besteengan pentsatzea.
Zer da ELKARTASUNA?
Entzuten jakitea eta garrasika ez ibiltzea.
Zer da ELKARTASUNA?
Maitasuna zabaltzea.
Zer da ELKARTASUNA?
Partekatzea eta eskuzabalak izatea.
Orain, badakizu
ELKARTASUNA zer den.
Beraz, hemendik aurrera,
horrela jokatu zuk ere.

